

UPV/EHUko ERREKTOREA AUKERATZEKO HURRENGO HAUTESKUNDEETARAKO GIDA/ARGIBIDEAK

SARRERA.....	2
HAUTESLE ERROLDAK.....	2
ZEIN DA NIRE HAUTESLE SEKTOREA?	3
NOLA JAKIN DEZAKET HAUTESLE ERROLDAN NAGOEN?	4
ZER EGINGO DUT ERROLDAN EZ BANAGO?.....	6
NOLA AURKEZTEN DA INPUGNAZIO BAT	6

SARRERA

Gida hau edo argibide hauek hiru fasetan banatzen dira, web orrian argitaratuko direnak hauteskunde egutegiko kasuan kasuko eguna iritsi ahala.

Lehenengo fasea hautesle erroldak eratu eta inpugnazioak aurkezteko da.

FASEA: HAUTESLE ERROLDAK

HAUTESLE ERROLDAK

Errektorea aukeratzeko hauteskundeetan, botoa eman ahal izateko, hautesle erroldan egon beharra dago; beraz, unibertsitateko kide bakoitzari eskatzen zaio hautesle erroldan bere datuak egoki jasoak daudela egiaztatzea.

Unibertsitateko kideak izan eta ondorengo baldintzak betetzen dituzten pertsona guztiek osatzen dute hautesle errolda:

IKASLEAK

Unibertsitateko edozein titulaziotan edo ikasketatan matrikulatutako ikasleak. Hautesle erroldan agertzeko, beharrezkoa da matrikula egina izatea eta tasak ordainduta izatea 2016ko urriaren 21a baino lehen (errolda itxiera data).

IRAKASLEAK ETA IKERTZAILEAK ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK

Kontratua edo izendapena izan behar da indarrean eta UPV/EHUn eskaini behar dira zerbitzuak, hau da, UPV/EHUn egon behar da jardunean. Eszedentzian dagoena, jardunean ez dagoelako, ezin izango da hautesle erroldan azaldu.

Sufragio aktiborako eskubidea izateko **bete beharreko baldintzak hautesle erroldak ixteko egunean, 2016ko urriaren 21an**, botoa emateko egunean ere bete beharko dira.

ZEIN DA NIRE HAUTESLE SEKTOREA?

Unibertsitateko kideak bost hautesle sektoretan banatzen dira:

Lotura iraunkorra duten irakasle eta ikertzaile doktoreak

Ondoko irakasle eta ikertzaileak sartzen dira:

- .- Unibertsitateko katedradunak**
- .- Unibertsitateko irakasle titularrak**
- .- Doktoreak diren unibertsitate eskolako katedradunak**
- .- Doktoreak diren unibertsitate eskolako titularrak**
- .- Irakasle osoak**
- .- Irakasle agregatuak**
- .- Unibertsitateko edo unibertsitate eskolako irakasle lankide doktore iraunkorrek**
- .- Ikerketako irakasleak**
- .- Doktore ikertzaileak**
- .- SHEEko irakasle doktore iraunkorrek**

Lotura iraunkorra duten irakasle eta ikertzaile ez-doktoreak:

Ondoko irakasle eta ikertzaileak sartzen dira:

- .- Doktoreak ez diren unibertsitate eskolako katedradunak**
- .- Doktoreak ez diren unibertsitate eskolako titularrak**
- .- Unibertsitateko edo unibertsitate eskolako irakasle lankide ez-doktore iraunkorrek**
- .- SHEEko irakasle ez-doktore iraunkorrek**
- .- Nautikako Eskola Ofizialeko irakasle numerario iraunkorrek**

Gainerako irakasle eta ikertzaileak

Bestelako figurek, gainerako irakasle eta ikertzaileen taldea osatzen dute.

Ikasleak

Ikasle mota hauek sartzen dira:

- .- Lizentziaturetako ikasleak (1. eta 2. zikloko ikasketak)**
- .- Diplomaturetako ikasleak (1. zikloko ikasketak)**
- .- Graduoko ikasleak**
- .- Graduondoko ikasleak (master ofizial edo doktoregoko ikasleak)**
- .- Berezko tituluko ikasleak**
- .- Etengabeko prestakuntzako ikasketetako ikasleak (Esperientzia Gelak, esaterako)**

Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonala

Administrazio eta zerbitzuetako langileak: UPV/EHUko funtzionarioak eta lan kontratadunak, eta indarreko legediari jarraituta UPV/EHUn zerbitzuak betetzen ari diren beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak. Baita behin-behineko langileak (errektoreak izendatutako konfiantzazko kideak) ere, UPV/EHUko lanpostuen zerrendan halako izaerarekin jaso direnak.

NOLA JAKIN DEZAKET HAUTESLE ERROLDAN NAGOEN?

Hautesle errolda urriaren 24an argitaratuko da ikastegi guztietako eta botoa ematen den gainontzeko eraikinetako (Leioako errektoregoan, Araba eta Gipuzkoako Campuseko errektoreordetzetan, Ekonomia eta Enpresen Zientzien Fakultatean eta Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan) iragarki taula guztietan, eta eskegita egongo da azaroaren 24ra arte.

Errolda GAUR aplikazioan begiratu daiteke ere. Aplikazioan sartu ondoren, ezkerreko zutabean aukera berri bat dutela ikusiko dute "Errolda" izenekoa, eta horren azpian "Errektorea aukeratzeko hauteskundeak – Errolda" izeneko azpiatala (ikusi irudia). Azken aukera horren gainean klik eginda erroldako datuak ageriko dira.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

GAUR

- Tutoretzak
- Ikasketak-planak
- Unibertsitate-trukea
- Errolda
 - Errektorea izateko hautesk. errolda
- SMS zerbitzuak
- Matrikulak
- Inkestak
- Onarpena
- Tituluak
- Azterketak
- Ekarpenak
- Espedienteak
- Itahitazko praktikak
- Borondatzeko praktikak
- Deialtasun zerbitzuak
- Proyectos Fin Carrera - Trabajos Fin de Grado
- Posta-kontua eta LDAP kontsultak
- Erabiltzaile eta pasahitza aldatu
- Irten

Errektorea izateko hauteskundeetako errolda

Erroldako datuak:

Errolda:	Errektorea izateko hauteskundeak
Abizenak eta izena:	
Boto-kolektiboa:	Ikasleak
Erreferentzia-ikastegia:	Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola

Boto elektronikoren kredentziala lortzeko erabiltzaile-datuak:

Erabiltzailea:		Gakoa:	
-----------------------	--	---------------	--

BEHIN-BEHINEKO ERROLDAREN AURKAKO ESKABIDEA:
http://www.idazkaritza-nagusia.ehu.es/p754-content/eu/contenidos/tormsehu/secretaria_general/eu_instancia/impugnar.php

Irakasle eta ikertzaileek eta AZPkoek Langileen Atarian lortuko dituzte datuak ere, ondoko aukeran klik eginda: "Nire datuak – Errektorea aukeratzeko hauteskundeetako errolda".






Hasiera | **Nire informazio pertsonala** | **Nire datu ekonomikoak** | **Nire lanpostua**

Hasiera | **Langilean Ataria**

Nire informazio pertsonala

Langilean aurkibidea:

Gogokoak:

Bilatuz:

Testua:

Parasaitza:

Erreklamazioak:

e-mailak / informazioa:

AZIkoen administrazioa
 Irakasketa eta ikertzaile funtzionarioen administrazioa
 Irakasketa eta ikertzaile kontratatuaren administrazioa
 Lan Harremanen administrazioa
 Pertsonen administrazioa
 SAGRIKAZ
 AZIkoen Prestakuntza Kabineta

Eskeulburuak:

Langilean Ataria

Langilean Ataria

Aplikazioaren modulu hauetan zure datu pertsonalak, ekonomikoak eta lanpostuari buruzkoak gestiona ditzakezu.

Nire informazio pertsonala

Modulu honetan zure datu pertsonalak ikusi edo alda ditzakezu.

- Nire informazio pertsonala
- Nire datu pertsonalak
- Nire datuak Erretoretan izateko hautakundeetako errolda

Nire datu ekonomikoak

Modulu honetan honako hauek egin ditzakezu: bankuko kontua ikusi edo aldatu, azken ordaintetarako eta errentarako 107 agiria ikusi, eta maileguak edo Gizarte Funtseko laguntzak eskatu, eta bizitza eta istripu polizen bemea kontsulta dezakezu eta onuradunak izendatu.

- Nire datu ekonomikoak
- Bankuko kontua
- Azken ordaintetarako
- 107 agiria
- Maileguak
- Gizarte Funtseko laguntzetarako deialdiak
- Bizitza eta istripu esguruaren politikak
- Itzari

Nire lanpostua

Modulu honetan zure lanpostuen historia ikusi dezakezu, eta prestakuntza ikastaroak eskatu. Bestalde, irakaslea edo ikertzailea bazara, edo izan bazara, sailak irakatslanaren gainean egindako biostenak ikusi ditzakezu.

- Nire lanpostua
- Lanpostuen historia
- Prestakuntza Katalogoa
- Prestakuntza-deialdi irekiak
- Prestakuntza-ekitalien egoera
- Irakatslanen egabiltasunak
- Egindako ikastaroen zerrenda
- Sailak irakatslanaren gainean egindako biostenak
- Barnako hautaketa-prozesuak
- Zabalutako barnako hautaketa-prozesuak
- Lekualdizteko/postu hutsak betetzeko lehiaketak eskatzea
- Lekualdizteko/postu hutsak betetzeko lehiaketarako nire eskariak
- Solitario Comisión de Servicios/Procedin de vacantes
- Mis solicitudes de Comisión de Servicios/Procedin de vacantes
- Izen lan-postuen epaimahaia eskatzea
- Izen lan-postuetako lehiakideen puntuekiko

[\[Nire informazio pertsonala\]](#)
[\[Nire datu ekonomikoak\]](#)
[\[Nire lanpostua\]](#)
[\[Gora\]](#)



Langileen Ataria



Langileen Atariaren mapa

Hasiera | [Nire informazio pertsonala](#) | [Nire datu ekonomikoak](#) | [Nire lanpostua](#)

Hasiera -> [Nire informazio pertsonala](#) -> [Nire datuak](#) Errektorea izateko hauteskundeetako errolda

IZASKUN ELBUEZUA ARANGUREN - Astellehena, 11/05/2010 10:00

Nire kontaktua:

Langileen aurkibidea:

Gogokinak:

Bilatu:

Testua:

e-mailak / informazioa:

Eskuliburuak:

Nire datuak Errektorea izateko hauteskundeetako errolda

Erroldako datuak:

Errolda:

Abizenak eta izena:

Boto-kolektiboa:

Erreferentzia-ikastegia:

Boto elektronikoaren kredentziala lorteko erobiltzaile datuak:

Erabiltzailea:

Gakoa:

DCI IIN DCI IINCKO ERROLDAREN AURKAKO ESKADIDCA.

[[Nire informazio pertsonala](#)] [[Nire datu ekonomikoak](#)] [[Nire lanpostua](#)] [[Gora](#)]

Nahiz eta datuak web orrian kontsultatu ahal izan, erroldak ez dira inoiz ere hor agertuko.

ZER EGINGO DUT ERROLDAN EZ BANAGO?

INPUGNAZIO BAT AURKEZTU DAITEKE

NOLA AURKEZTEN DA INPUGNAZIO BAT?

Hauteskunde Batzorde Orokorreko buruari zuzenduta aurkeztu behar diot inpugnazio bat urriaren 27ko 10:00ak baino lehen. Inpugnazioa idatziz aurkeztu behar da Erregistro Orokorreko edozein bulegotan edo, kasuan kasu, web gunean azaltzen den formulario bidez.

Web orriko formularioaren aplikazioak ohar bat helaraziko dio erabiltzaileari formularioa zuzen bidali dela jakinaraziz. Horrelako oharrik jasotzen ez bada, Idazkaritza Nagusiarekin jarri beharko da harremanetan errektorehauteskunde@ehu.eus posta elektronikoaren bidez edo, bestela, inpugnazio bat aurkeztu beharko da erregistroko bulego batean.

Formularioa betetzeko klikatu hemen [FORMULARIOA](#)